

EKOLOJI TAILERRA. BAZTERTXO

1991^{ko}

urrian eman genion hasiera EKOLOJI TAILERRARI. Joannes Etxeberri ikas-tetxean arratsaldetan tailer desberdinak daude antolaturik, (antzerkia, irratia, eskulanak, etab.), eta ekolojiari tartetxo bat egitea oso ideia egokia iruditu zitzaigun. Gure asmoa ez zen inolaz ere klase teoriko bat ematea eta lau pareta artean mugitzea. Gaur egun haurren hezkuntza eta gauzak ikastea erabat kontrolpean dago, orain hau, gero bestea, 3. mailan hau, 5.ean bestea, eta horrela gure irakaslerik onena, hau da kalean bizi dena, liburueta pasa eta liburuetatik burura sartzen dugu, denbora piska bat pasa eta dena edo ia dena ahaztuta badugu ere.

Honela bada, gure helburua, piska bat hori dena puskatzea izan da, gauzak denon artean erabakiz, lanak haurren akerara utziz, ikasle-irakasle binomio hori ahalik eta gehien puskatu nahian. Egia da, irakasle baino gehiago laguntzaile bezala jokatu dugula, egin behar ziren lanak, nola egin, piska bat orientatu eta beraiei utziz.

Beste helburu oso garrantzitsu bat ere bete nahi izan dugu. Askotan esan eta errepikatu dugun gauza da. Bai heldu eta bai gazteek naturarenganako lotura hori, sentsibiltate hori baztertuta daukagu, gero eta antinaturalagoak garelarik. Natura eta bereziki zuhaitz eta landareen mundua hurbilagoetik ezagutzeak, errespetarazi eta maitarazi egiten dizu.

Aurrekoari jarraituz, ba, guraso elkarrekin harremanetan jarri eta presupuesto bat aurkeztu genuen, gure asmoa eta beharrak zeintzuk ziren, laguntza aldetik batezere, ezagutaraziz. Ekoloji tailerra haurrentzat urriatik ekaina arte

izango zen, ikastaroak hiruhilabetekoak izango zirelarik; lehenengo haur taldea urriatik abendura, bigarrena gabonak pasa eta apirila arte eta hirugarrena eta azkena ekaina arte.

Honela bada, urrian eta negua gainean genuelarik lehen taldearekin hasi ginen. Talde hau O.H.O.ko 6. eta 7. mailetakoz zortzi neska mutil eta hiru (batzuetan lau) laguntzailez osaturik zegoen. Asteartero arratsalde bi orduz biltzen ginen, nahiz eta batzutan bi ordu horiek pasa eta gustora geundelako lanean jarraitu.

Lehen pausoa, gure asmoa zein zen haurrei azaldu eta ingurutik irteera bat egitea izan zen, zuzenean naturarekin harremanetan jarritz. Altamira ingurutik buelta bat eman genuen zuhaitzen ize-nak eta era berean beren ezaugarriak (hostoak, enborra, fruituak, etab.) kontutan harturik hauek identifikatzen jakin zezaten. Herriko hazitokia ikusi genuen eta Lezon dauden zuhaitzak orohar.

Udazkena amaitzeaz zegoenean, landareak ugaritzeko eman behar diren lehen pausoi ekin genion, hau da, hazi bilketa eta zenbait zuhaitzen adar bilketa, hauek bait dira ugaritzeko bi moduak. Landare batzuk hazitik sortzen dira (lizar, astigar...), besteak berriz adarren bidez (sahats, platanondo...). Bildutako haziak kaxa batzuetan jarri genituen, adarrak berriz urez betetako bidoietan. Kimaketa garbi bat egiten ikasi genuen, zuhaitz nagusiei ahalik eta kalterik txiki-ena eginaz.

Hurrengo pauso garrantzitsua BAZTERTXO hazitokia izango zenaren prestakuntzarekin hastea izan zen. Lekua ez zen oso egokia eta egokipen minimoak lan haundia eman digu, hala

nola, sasi mozketa, belar kenketa, harri bilketa, lur beltza ekartzea, hazitokiari forma piska bat ematea...

Zailtasun haundienak hementxe topatu ditugu. Udalari aurkeztutako pre-supuestoa atzera botatzen dute eta gutxienezko lan tresnak, lur beltza eta ureztatzeako aukera eskasak, lana gogortu eta luzatu digu. Tresnak guk igo behar egunero, lur beltza, garai batean Lezoko kaia eta gaur egun etxeak egiten ari diren lekuko baratzetatik lortu genuen. Ureztaketa berriz, «regadera» batekin egiten dugu, eskolako komunetara ino txandaka hamaika joan etorri eginez. Abenduan «Consejo Eskolarrak» hamabost mila pesetako diru laguntza bat ematen digu.

Altamira gainan haizeak gogor jotzen du eta hazitoki ingurua «aligustrez» (gure artean karraskillo izenez ezaguna) eta sahatsak landatu genituen gainontzeko landare berriei babes eman nahian.


Benetan gogorra izan zen egun batean argindarra handik pasa behar eta eginga dako lana izorratuta ikusi genuen eguna.

BAZTERTXO eskola sarreran dago eta nahiko utzita zegoenez, sarrera piska bat txukuntzea pentsatu genuen, bertan dauden lizarrak kimatuz, sasiak moztuz, zaborra bilduz...

Zuloak egitea ere lan izerditsua izan zan. Zenbait zuhaitz aldatzeko zulo ederak egin genituen, pazientziz lur ona alde batean utziz, harriak kenduz, etab.

Uretan edukitako platanondo eta sahats adarrak eskola inguruan landatu genituen. Palanka batez zuloa egin eta bertan sartu.

Herriko hazitokitik bederatzi astigar igo genituen eta aurretik prestatutako zuloetan sartu, lur goxoena sustrai inguruan, lur kaxkarrena ondoren boteaz. Lurra eusteko inguruko harriekin borobil antzeko bat egin genuen, landatu



ondoren inguruan belar legorra jarri, eguzkiak lurra ez zezan hainbeste zigortu eta ur pertzaka bana.

Udalaren aldetik debeku bat iritsi zitzaigun. Eskolako saretik kanpora ezin zen landaketarik egin. Ez hurrek eta ez guk ez genuen debekua ulertzen, eskolako sare barnean kasik ez dago lekurik.

Gabonak berehala eta lehen taldeak amaiera ematen dio ekoloji tailerrari. Urte berria, talde berria. Aurreko taldeak egindako lanak ikusi eta erreleboa hartu genuen.

Hazitokian leku gehiago behar eta beste eremu bat prestatzeari ekin genion, atxurtu, lurra txukundu, lur beltza gehitu, etab. Landaketak martxan doaz. Rokodromoan sei zulo berri, lore exotikoak tiestoetan, eskolako sarreran, Epertxokon, eskola inguruan. Landare batzuen adartxoak lurretan sartu genituen ugaritzeko asmoz eta baita aurreko taldekoek bildutako haziak ere. Hazitoki inguruan ere landaketa berriak egin genituen ia ia osoa inguratuz.

Otsaila. Azkar doa denbora. Konposta egiteko egurrezko ontzi bat egin genuen. Konposta, ustelgarria den edozein gauzaz egin liteke, etxeko janari hondakinak, moztutako belar eta sasiak, hostoak... Lurra aberastuko dute.

DARIETA baserri atzean dagoen baso txikira joan ginen, baso baten errekupeketa naturala pausoz pauso ikusiz. Antxillastegin, herriko elkartearen artean egindako landaketak eta Epertxoko aurrera darraien berpoblaketa ere bisitatu genituen.

Konturatzerako, apirilaren geunden. Hirugarren talde hau oraindik arrakastatsuagoa izan zen hamairu neska mutil sartu bait ziren. Udaberria gainean eta landaketak egiteko epea bukatuz zihoan. Talde honek, landaketak egiteko izugarritzko gogo zuen eta nahiz eta

piska bat garaiz kanpo, hiru astigar landatu genituen kontuz kontuz, kimatuz, mimatuz.

Udaberriarekin landareen mundua esnatzen hasi zen. Edozein tokitan belarra, zuhaitzen kimu berriak... Baztertxo eta landatutako zuhaitzak txukun mantentzen lan ugari eduki genuen. Hazitokian belar txarrak kendu, landare gazteen inguruan belar legorra jarri. Belarra eta sasia moztu ihitaia, matxetea eta neurri batean sega erabiltzen ikasi genuen. Ureztaketak ere garrantzi handiagoa hartu zuen gure eginbeharretan.

Eguraldi txarra topatzen genuenean berriz, kanpoan ezin lanik egin eta gaia-ekin zerikusia daukaten diapositibak bota genituen.

Maiatza aldera eta ikastaroa amaitzear zegoenean Bidebitartera joan ginen oinez. Oiartzungo baserri honetan landare gazte ugari ikusi genituen. Zenbat landare!! Zein desberdinak!! Hango etxekoandreak lore bana oparitu digu bakoitzak bere etxean zaintzeko.

Ikastaroa amaitu da. Denok asko ikasi dugu. «Consejo eskolarrak» diru gehixeago eman digu eta lan tresnak eta gorotza erosi ditugu datorren urterako. Guk, laguntzaileok esperientzi gehiago ere jaso dugu. Udan, guk zaindu dugu hazitokia eta orain irailean gogo handiz berriro ekingo diogu.

91-92 IKASTURTEAN BURUTUTAKO LANDAKETAK

Landaketa hauek hurrekin burutuak izan dira, batez ere Altamira auzo edo mendixkan, Joannes Etxeberri eskola inguruan. Halere batzuk Jaizkibelen burutu ditugu, berpoblaketa baten saio-keraren barruan.

Bi eratara egin ditugu:

- Batzuk adarretik (txotxetik).
- Beste batzuk sustraiekin (zulo batetan jarriz).

Besterik gabe, hauexek dira:

- 35 Platanondo eskola inguruan.
- 12 Astigar Negundo eskola inguruan.
- 4 Espiria eskolako sarrera ondoan.
- 8 Sahats Negarti eskola inguruan.
- 2 Altea «Baztertxo» hazitokian.
- 3 Bolagorri «Baztertxon».
- 10 Hortensia «Baztertxon» (saiakera txotxetik).
- 10 Laurel Cerezo delakoa «Baztertxon» (saiakera txotxetik).
- 20 Espiria Baztertxon (saiakera, txotxetik).
- 10 Arbustu loredun Baztertxon (saiakera, txotxetik).
- Hainbat aligustre Baztertxon babesa emateko landare gazteei (txotxetik, saiakera).
- Hainbat hazi bildu ondoren lurretan sartu, hurrengo urtean landatu ahal izateko (astigarra, lizarra,...).
- 4 Gorosti eta Arte bat Epertxokon (Jaizkibelen).

LEZOKO EKOLOJI TALDEA

